

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### MENAGARAI-BEOTEGIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Mugaketako administrazio espedientea

Menagarai-Beotegiko Kontzejuak, 2021eko urtarrilaren 30eko bilkuran, honako hau erabaki du:

1. Hasiera ematea Bidabeko itzulitik Fontarronerako bide publikoaren zati bat mugatzeko administrazio espedienteari, Gorosti Neurketak ingeniari-tza enpresak idatzitako 2021eko urtarileko memorian oinarrituta.

Mugatu beharreko tartea Fontarrón izeneko parajea dago, Kexaatik Menagaraira doan A-4620 errepideko Bidabeko Itzulian du jatorria, Beotegitik igarotzen da, eta Fontarronerantz doa, Iba-guen eta Kexaa lotzen dituen beste bide publiko bateraino. 280 metroko luzera du, eta muga hauek ditu: ekialdean eta mendebaldean, bide bereko gainerako zatiarekin, eta:

– Iparraldean, Aiarako 6 poligonoko 240, 239, 238, 237, 2331 eta 236 zenbakiko katastro lurzatiekin.

– Hegoaldean, Aiarako 6 poligonoko 380, 379, 378, 377 eta 376 zenbakiko katastro lurzatiekin.

2. Zehaztu da neurtze lanak 2021eko ekainaren 1ean hasita, mugatu beharreko bidearen zatiaren hasieran, landa katastroko 6 poligonoko 240 lurzatiaren ondoan. Neurtze lan horiek Gorosti Neurketak ingeniari-tza enpresak zuzenduko ditu, eta goizeko 10:00etan hasiko dira lehendakaria eta idazkaria bertan daudela.

Mugaketa espedientean interesa duten partikularrak peritu teknikoez lagunduta bertaratu daitezke.

3. Espedientea jendaurrean jartzea eta erabaki hau jakinaraztea herri lurraren mugakide diren jabeei, eta neurtze lanak hasi baino 60 egun baliodun lehenago argitaratzea, ALHAOn eta Menagarai-Beotegiko toki erakundearen iragarki taulan.

Espedientea jendaurrean dagoen bitartean, interesdunek Aiarako Udalaren bulegoetan (Eliza auzoa 3 - 01476 Arespalditza) izango dute eskuragarri.

4. Interesdunei jakinaraztea, beren eskubideak frogatu eta aldezteko egokitzat jotzen dituzten alegazioak eta agiriak aurkeztu ahal izan ditzaten Menagaraiko Administrazio Batzarrean nahiz Aiarako Udalaren bulegoetan, administrazio batzar honi zuzenduta, neurtze lanen hasiera baino hogei egun lehenago. Epe hori igaro eta gero, ez da onartuko ez agiririk ez alegaziorik.

Administrazio Batzarrak dagokiona erabakiko du agirien eta gainerako frogen gainean, horiek aurkezteko epea amaitu eta mugaketa hasteko finkatu den egunaren bezpera arte, eta une egokian jakinaraziko zaie interesdunei.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Menagarai-Beotegi, 2021eko urtarrilaren 30a

*Lehendakaria*

*M<sup>a</sup> CARMEN CAMPO URQUIJO*